

Elkartasunerako deia:



4 ETA 9 URTE ARTEKO KARTZELA ZIGORRA?

AHT-REN AURKAKO MERENGEZKO TARTAKADENGATIK

Mugitu! AHTren aurkako desobedientzia mugimenduko lau kide Entzutegi Nazionalan auzipetuta Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria Toulousen tartakatzeagatik

2. orrialdea TXOSTENA: 4 ETA 9 URTE ARTEKO KARTZELA ZIGORRA?

AURKIBIDEA

1. **Sarrera: Txosten honen helburua/ laburpena**
2. **MUGITU! Mugimendua (M!M):**
AHT-ri desobedientzia zibila
3. **AHT-ren Aurkako Tartakaden Ekintza**
4. **Tartalarien atxiloketa**
Nafarroako Foruzainen eskutik
5. **Sostengu mobilizazioak eta elkartasun adierazpenak**
6. **Agintaritzari atentatua**
delituagatiko Auzibidea
Entzutegi Nazionallean
7. **Auzibidearen salaketa:**
Gozogintzaren kriminalizazioan
Espainiako Estatua aitzindari

ERANSKINAK

- 1.E. Yolanda Barcinari gutun irekia
- 2.E. Tartakada politikoen jarduna eta honen ondorio legalak mundu zabalean
- 3.E AHT-ren aurkako borroka Euskal Herrian
- 4.E. Esteka interesgarriak: dokumentuak, bideoak, webguneak,...

Landuta eta editatuta



Scribus
-ekin

Argazki oinak:


- 3.orrialdekoa: AHTren aurkako manifa Irun eta Hendaia artean (2010-01-23)
- 4.orrialdekoa: AHTren lan eremurainoko martxa Urbinan (2009-01-17)
- 5.orrialdekoa: Okzitaniatik elkartasun irudia (El Paso libre) (2011ko urria)
- 6.orrialdekoa: Y. Barcinari tartakada (2011-01-27)
- 7.orrialdekoa: Tartalarien sostenguz egindako kamiseta (2012ko uztaila)
- 8.orrialdeko goikoa: Aurkezpena Iruñeko Auzitegian (2012-05-17)
- 8.orrialdeko behekoa: Prentsaurrekoa Iruñean (2011-10-28)
- 9.orrialdeko goikoa: Tasioren zinta Garan argitaratua (2011ko urria)
- 9.orrialdeko behekoa: Iruñean izandako elkarretaratzea (2011ko urria)
- 10.orrialdeko goikoa: Tarten prestakuntza (2011-11-28)
- 10.orrialdeko behekoa: AHTren aurkako 11 tarta (2011-11-28)
- 11.orrialdekoa: Elkarretaratzea Entzutegi Nazionalaren aurrean (2011-10-16)
- 12.orrialdeko goikoa: Lezon egindako murala (2011ko azaroa)
- 12.orrialdeko behekoa: Ekainen zinta
- 13.orrialdekoa: Prentsaurrekoa Nafarroako Legebiltzarraren aurrean (2011-11-10)/ Aurkezpena Entzutegi Nazionallean (2011-11-06)
- 14.orrialdekoa: Bilbon Frantziak duen kontsuletxearen aurrean egindako elkarretaratzerako kartela (2012-05-15)
- 15.orrialdekoa: AHTren aurkako billete zigilaketa
- 16.orrialdekoa: Osakidetzaren aurreko protestan banatutako errezeta (2011-02-22)
- 17.orrialdekoa: Tartakada bat
- 18.orrialdekoa: Protesta ekintza Irunen TGV geldituz (1996ko apirila)
- 19.orrialdekoa: AHTren aurkako manifa Baionan (2010eko abendua)

3,4,8,9 eta 19. garren orrialdeetako argazkiengatik Ekinklik-i eskerrak. Lan hau lizentzia Creative Commons Reconocimiento-CompartirIgual 3.0 Unported (CC BY-SA 3.0) baten azpian dago

http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.es_ES

Lan hau lizentzia Creative Commons Atribución-CompartirIgual 3.0 Unported baten azpian dago

http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.es_CO



CC creative commons

1. SARRERA: TXOSTEN HONEN HELBURUA

2011eko urriaren 27an, Mugitu! AHT-ren aurkako desobedientzia mugimenduko kide batzuek Toulousen ospatzen ari zen Piriniotako Lan Komunitatearen osoko Batzarra eten eta Yolanda Barcina Nafar gobernuaren Lehendakaria tartakatu zuten, ekitaldi hartan Euskal Herrian AHTren inposaketaren erantzule nagusia bera zelako. Ekintza hau Espainiako Estatuaren mugetatik at izan arren, salbuespeneko auzitegia den Entzutegi Nazionalak Mugitu!ko 4 kideak auzipetu ditu, agintaritzari atentatua egotzita, fiskalak 4 eta 9 urte arteko kartzela zigorra eskatzen dielarik.

Txosten honek ekintza eta bere zergatiei buruz informatzea du xede, 4 auzipetuekiko Euskal Herrian, Espainiako estatuan eta nazioartean elkartasun kanpaina bultzatzeko eta aldi berean, AHTren aurkako mugimenduaren kriminalizazio testuinguruan kokatzen den auzibide hau salatzeke.

LABURPENA

Dokumentu honen xedea, azalak dioen moduan, AHTren aurkako Mugitu! desobedientzia Mugimenduko lau kideren aldeko elkartasun kanpaina abiaraztea da. Lau kide hauek Espainiako Entzutegi Nazionalak auzipetu ditu 4 eta 9 urte arteko kartzela zigor eskaerekin Toulousen (Frantziako Estatu) protesta ekintza batean, Nafar Gobernuko Lehendakaria Yolanda Barcina tartakatu ondoren. Lan honetan zehar azaltzen ditugun gertaera nagusien laburpen bat egin asmoz, honako hau adierazi nahi dugu:



1.- 2011ko urriaren 27an, Toulousen, mugimendu honetako hainbat kidek, Okzitaniako Libertat taldeko kideen laguntzarekin, Pirinioetako Lan Komunitateko (PLK) osoko bilkuran AHTren aurkako protesta ekintza bat burutu zuten. Zehazki, Nafarroako Foru Erkidegoko Lehendakaria Yolanda Barcina tartakatu zuten merengezko hiru tartekin. Ekintza honen bidez, Mugitu! Mugimenduak Euskal Herrian AHTren inposaketa salatzen zuen eta era berean, sinbolikoki, AHTren eraikuntzaren “pastel” guzia boterean dagoen klase politikoa, eraikuntza enpresek eta bankak jaten dutela adierazi nahi zuen. PLKren bilkura haren gai “izarra” hain zuzen ere, “Pirinioetan zehar abiadura handiko linien interkonexioa” izan zen. Hortaz, tartak gure herrian hain kontestazio zabala duen proiektu honen inposaketaren arduradun nagusienetakoa, Yolanda Barcina, Lehendakariaren gainera erori ziren.

2.- Toulousen, protesta ekintza hau gora-behera handiegirik gabe pasatu zen, eta nolabaiteko normaltasunarekin. Polizia ez zen bertaratu eta ez ziren ez atxilotarik ez identifikaziorik egin.

Tartek ez zioten inongo kalterik eragin Yolanda Barcinari eta segurtasun zaindarien laguntzaz komunera joan eta garbitu ondoren, 15-20 minuturen buruan aretoa irribarretsu itzuli zen honelako txantxak botaz: “PLKren Lehendakari agintaldia, hasiera hau bezain gozoa izanen dela espero dut...”. PLKren bilkura amaiturik ordea, nafar lehendakariak akusazio larriak egin zituen protesta egin zutenak “bortizkeriarekin eta ETArekin lotuz”, telebista kate espainiar bati eginiko adierazpenetan. Kanpaina intoxikatzaile eta kriminalizatzaile zital baten hasiera besterik ez zen izan hau. Iruñean, tartakadak leku askotan sekulako poztasun herritarrez ospatzen ziren bitartean, Nafar Parlamentuak bere bilkura eten eta gertaera gaitzetsi zuen.

3.- Hurrengo egunean, Foruzaingoak lehendakaria tartakatu zuten hiru pertsonak atxilotu zituen eta Iruñean ekintzaren nondik norakoak azaltzeko eta akusazioak gezurtatzeko eman nahi zuten prentsurrekora joan ezinik gelditu ziren. Ordu batzuen ondoren, tartalariak aske gelditu ziren

4. orrialdea TXOSTENA: 4 ETA 9 URTE ARTEKO KARTZELA ZIGORRA?



baina Espainiako Entzutegi Nazionalako zitazio batekin “agintarien aurkako atentatuaren” akusaziopean. Mugitu! Mugimenduak orduan, zigor jazarpen honen salaketa ekimenak abiatu zituen eta Euskal Herriko zein beste toki askotako pertsona eta taldeek auzipetuei elkartasuna adierazi zieten.

4.- 2011ko azaroaren 16an, tartak botatzeagatik auzipeturiko hirurak Entzutegi Nazionalaren aurrean agertu ziren eta “agintariaren aurkako ustezko atentatuagatik” inputatuak izan ziren. Fiskaltzak 4 eta 6 urte arteko kartzela zigorrak eskatu zituen hirurendako eta hauetako bati, 9 urte arterako kartzela zigorra eskatu zuen, ekintza aurrera eramateko, Nafarroako herri txiki bateko zinegotzi izanik, ustez karguaz baliatu izan zenaren larrigarriarekin. Entzutegi Nazionalak kautelazko neurriak ezarri zizkien tartalariei, pasaporteak kenduz, espainiar Estatutik ateratzeko debekuekin eta astero, auzitegi baten aurrean sinatzeko betebeharrarekin. Defentsak 4 eta 9 urte arteko espetxe zigor eskaerak hiperbolikoak eta neurrigabeak zirela argudiatuz helegiteak jarri zituen eta prozesua Hutsegite Epaiketa batera bideratu zedin eskatu zuen, proportzionaltasun printzipioa aldarrikatuz, tartakadak gertatu ziren estatuan hala gertatzen baita antzeko kasuetan, hainbat eta hainbat epaitan ezarri bezala. Baina helegiteak atzera bota zituzten.

5.- Bitartean, tartakaden ekintzagatik Tolouseko Tribunal de Grande Instance-an dilijentziak ireki ziren. Honela, 2011ko azaroaren 28an Libertat taldeko bi kide hiriko komisaldegira deituak izan ziren, Martin Malvyk, Midi-Pyrénées-eko Kontseilari Nagusiak, poliziaren aurrean telefonoz ekintzaren egun berean eginiko salaketagatik.

Handik aurrera ordea, ez zen berri gehiagorik ezagutu, auzipetuek Tolouseko auzitegian deklaratzeko egin zuten eskaera ofizialari erantzunik eman gabe.

6.- Azkenik, 2012ko otsailaren 16an Entzutegi Nazionalak 2/2012-10 Sumarioari hasiera eman zion, laugarren pertsona bat inputatuz “agintariaren aurkako atentatuagatik”, Tolouseko protestan parte hartzeagatik eta hurrengo egunean Iruñean tartalarien ordeztu eman zuen prentsurrekoagatik, hauek atxiloturik zeuden bitartean.

Hau da, laburki, Mugitu! AHTren aurkako desobedientzia Mugimenduko lau kide Madrilgo Entzutegi Nazionalera auzipetuak izatera eraman dituen gertaeren kontakizuna. Orain, Toulousen Yolanda Barcina nafar Lehendakaria tartakatzeagatik kartzela zigor gogorren arriskuan aurkitzen dira eta horregatik, hauxe salatu nahi dugu:

A) Protesta ekintza komiko bat besterik ez dena, eta mendebaldeko edozein herritan apenas ondorio legalik ez duena, espainiar Estatuan kriminalizazio eta jazarpen penal laugarri baten xede da. Gertaerak agintariaren aurkako atentatutzat kalifikatzea eta 4 eta 9 urte arteko kartzela zigorrak ezarri ahal izatea, proportzionaltasun printzipioa ez errespetatzea dakar. Eskaturiko zigorren larritasunak gainera “elementu subjektiboetan” oinarritzen dira, esaterako, “autoritatearen printzipioa kaltetu” nahi izatearen akusazioa.

B) Nafar Gobernuaren mendeku politikoa, Madrilgo Entzutegi Nazionalan zigor eredarri

bat lortu nahian, frankismotik eratortzen den salbuespenezko auzitegi horretan hain zuzen ere, eta gaur egun, espainiar Estatuko disidentzia politikoaren jazarpen tresna nagusi bilakatu dena. Era berean, kausa hau Foruzaingoak hartu izana, espainiar Estatutik kanpo eskumenik ez duena eta bere Lehendakariaren aginduetara dagoena, kausa honen salatzailea dena.

C) Frantziako agintarien kolaborazio judizial-polizala, Toulousen hasiera batean ireki ziren eginbideak geldiarazteagatik, beren lurraldean gertaturiko protesta ekintza bat izan arren, jakinda, guzia Falta Epaiketa batean geldituko zela. Honela, lau pertsona hauen auzipetze eta jazarpen penal lazgarria posible egin dute Espainiako Entzutegi Nazionalean.

Honegatik guziagatik, Madrilgo Entzutegi Nazionalean egin diren auzipetze hauek salatzen ditugu eta elkartasun deialdia luzatzen dugu, beste behin ere, AHTren aurkako borroken eta desobedientziaren aurkako kriminalizazio honen aurrean.

2. MUGITU! MUGIMENDUA (M!M): AHT-RI DESOBEDIENTZIA ZIBILA

Azken 20 urte hauetan pertsona eta talde asko elkartu den AHTren aurkako mugimenduaren baitan gogoetaldi luze baten ondoren, 2.010ko maiatzean Mugitu! AHTren aurkako desobedientzia zibileko mugimendua sortu zen..AHTren aurkako borrokan desobedientzia zibila bultzatzeko asmoz sortu zen M!M, eta horretarako ekintza publikoak eta ez biolentoak erabiltzen ditugu, erantzukizuna geure gain hartuz. Ekintzetan, ahal den jende gehien parte hartzen saiatzen da, askotan egun berean Euskal Herriko toki frankotan modu koordinatuan ekintza bera burutuz.

Gaur arte, M!Mk ekintza eta kanpaina mordoxka burutu du: Donostiako Ogasun Delegazioaren okupazioa, txartelen zigilatze kanpaina, erreka eta ibaien tindaketa, bi pegatinaketa handiak, Osasunbidea eta Osakidetzaren eraikinen aurreko parodia eta elkarretaratzeak, Mugitu!eguna irakaskuntzan, milaka sasiisunen ezarketa, errepideetan errodiolen bidezko pintaketa gauak, EAEko kurtso politikoaren haserako parodiak, Mariezkurrena enpresaren salaketa etabar. Azpiegitura faraoniko honek eragiten dituen kalte ikaragarriak, zarrastalkeria eta politika sozialean suposatzen dituen murrizketak, instituzio eta enpresen parte hartzea, proiektuaren inposaketa eta oposaketaren kriminalizazioaren salaketa izan da ekintza hauen guztien helburua. Informazio gehiago eskuratzeko honako webgune honetara jo: <http://mugitu.blogspot.com>

Inpaktu sozial eta mediatiko gehien sortarazi eta seguruenera ondorio penal handien izan dezakeen ekintzetako bat Toulousen ospatu zen Piriniotako Lan Komunitatearen 29. Osoko Batzarra ekitaldiaren etenaldia eta ondoren Yolanda Barcinaren Nafar Foru gobernuaren Lehendakariaren tartakatzea izan da.



3. AHT-REN AURKAKO TARTAKADEN EKINTZA

2011ko urriaren 27an, M!Mko partaide batzuek Okzitaniako Libertat mugimenduaren kide batzuen sostenguz, protesta ekintza bat burutu zuten Toulousen ospatzen ari zen Pirineotako Lan Komunitate (PLK)aren 29.garren Osoko Batzarra etenaz. Bertan, PLK-ko 8 lurraldean hainbat lehendakari eta agintari zeuden. Pirinotako bi alderdien Erregio eta Autonomia Erkidegoak-Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoa barne- batzen dituen mugaz gaindiko erakundea da PLK delako hori. Bi urtean behin, PLKk Pirinotako komunikabideen inguruko Konferentzia ospatzen du eta Toulousen urriak 27 eta 28an ospatu zen topaketaren gai nagusia “Abiadura Handiko Trenbideen arteko lotuneak” izan zen. Honetaz gain, azken bi urteotan Midi-Pyrénées-eko Erregioak zuen PLKren lehendakartzaren balorazioa egin behar zen eta Yolanda Barcina Nafar Lehendakariak erakunde horren lehendakaritza hartu behar zuen hurrengo bi urtetarako. Beraz, ekitaldiak AHTren aurkako salaketa egiteko aukera ona eskeintzen zuen.

Osoko Batzarra hasi eta berehala, Mugitu!ko kideek lehendakartzaren oholtzara hurbildu eta ekitaldia eten zuten, AHTren aurkako kartelak erakutsiz eta oposaketaren arrazoiak frantsesez azalduz. Aldi berean, Yolanda Barcinak hiru tartakada jaso zituen aurpegian beste hainbat ekintzaileren eskutik. Ekintza honen jomuga bera



izan zen ekitaldi horretan bi Euskal Autonomia erkidegoen ordezkari gorena izanik, Euskal Herrian AHTren inposaketaren erantzule nagusia bera zelako.

Poterean dauden politikariek, eta eraikuntza enpresek banketxeekin batera AHTren eraikuntzaren “ pastela” bereganatzen ari direla ikustarazi nahi zuen M!Mk ekintza honen bidez. AHTren inposaketa eta PLK-ko agintariak ere salatu genituen; izan ere, beraiantzat Pirinioak harresi bat besterik ez dira, botila-lepo bat, negozioak eta merkantzien joanetorriak oztopatzen dituztenak. Beraien erronka hortaz, “Pirinioen iragazkortasuna” erdiestea da. Beste hitzetan esanik, garraioen igoera izugarria sustatu





nahi dute Pirinioak azpiegitura handien bidez zeharkatuz erdigune enpresarial handiak lotzeko eta gure mendilerroa “gruyere gazta” erraldoi bilakatzeko. PLKren baitan, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa salatu nahi genituen, inoiz baino tematiagoak segitzen baitute “Euskal Y”aren eta Nafar Korridorearen inposaketan. Geroz eta kontestazio handiagoa duten proiektu hauekin kostatuta ahalak aurrera darraite, beste herrialde batzuetan AHT linea berrien eraikuntzak inoiz baino aurkako jarrera handiagoak dituztenean, proiektu hauek erabat suntsitzaileak eta galgarriak suertatzen baitira.

Ekintzaren kariatara argitaratutako idazkiak honako hau zioen: “AHTren eraikuntza, hala nola azpiegitura handien proiektuak, kapitalismoaren garapen ereduaren aurrerako ihesa baino ez dira, inoizko krisi global, ekologiko, ekonomiko eta sozial handien garaia. AHTn xahutzen diren baliabide publiko izugarriak irabazi itzelak ematen dizkie bankariei, eraikuntza enpresei eta klase politiko ustelari. Aldi berean, murrizketa beldurgarriak pairatzen ditugu hezkuntzan, osasungintzan, pentsioetan eta laguntza sozialetan. Hau gutxi balitz, AHT klase dirigenteari begirako garraio elitista hutsa da, biztanleen gehiengoak erabiltzen duen betiko trenak desegite prozesu batean dutela. AHT hortaz, ezberdintasun sozialak handitzen

laguntzen du, krisian eta zorpetzean hondoratu. Gainera, abiadura handiko lineak herritarrei inposatzen zaizkie erabakitzeko orduan inongo aukerarik eman gabe; aldiz, gobernuak desinformazioa, manipulazioa, autoritarismoa eta estatuaren indar arrazoiak behin eta berriz erabiltzen dituzte, bai Euskal Herrian, bai Val di Susa bai eta Europako beste tokietan ere.

Hau dela eta, AHT eta azpiegitura handiak gelditzeko garaia dugu, gaur egungo jendartearen eraldaketa sakon bat abiatuz guztion artean soluzioak bilatzeko. Garraio motorizatua murriztea beharrezkoa ikusten dugu auto-sufizientzia eta gertutasuna lehentasunez bultzatuko duen eredu sozio-ekonomikoa sustatuz eta herrien autoerakuntza erak eta erabakiak errespetatuz. Edonola ere, krisialdia areagotzen ari den honetan “pastela” ttipiarazi behar dugu, berbanatu, eta batez ere, bere errezeta aldatu beharra dago”.

Honengatik guztiagatik, “Euskal Y” eta Nafar Korridorearen lanen berehalako gelditzea exigitzen genuen eta bide batez, Okzitania zein Europa osoan AHTren aurka gora doan oposizioarekin bat egiten genuen gure elkartasuna adieraziz. AHT: ez han ez hemen!

Ekintzaren bideoa:

http://www.youtube.com/watch?v=xuK Uv_FAktI

4. TARTALARIEN ATXILOKETA NAFARROAKO FORUZAINEN ESKUTIK

Ekintza bukatutakoan, Toulousen ez zen atxiloketarik ezta identifikaziorik burutu eta ekintzaileek batzartokiaren kanpoaldean prentsaurreko labur bat burutu zuten, polizia bertaratu gabe. Handik bi ordura M!Mk ekintzaren zergatia azaltzeko idazki bat argitaratu zuen eta aldi berean mugimenduko beste kide batzuek grabaturiko tartakaden bideoa internetez zabaldu zen. Bitartean, PLKko Osoko Batzarra etenda geratu zen eta 15-20 minutura Yolanda Barcina irrifarrez agertu eta mikrofonoa hartuta hauxe esan zuen: espero dut PLKko lehendakaritzaldia hasera hau bezain goxoa izatea. Hortik aurrera ekitaldia normaltasun osoz garatu zen.

Hala ere, iluntzean ekintza zela eta Nafarroan sortutako erreakzio instituzionalak kezka handiz jaso genituen. Izan ere, Toulousera iristen ziren berriak bi motatakoak ziren: Iruñeko toki askotan ekintza oso modu alaian ospatzen ari zen bitartean, Nafar Legebiltzarrean arratsalde hartan egiten ari zen bilera eten egin zuten ekintza gaitzesteko, handik aurrera intoxikazio kanpaina politiko eta kriminalizatzaileari ekinez. Nafar gobernuko Lehendakari berak Toulousen, espainiako telebista kate batek egindako elkarrizketan, helburu kriminalizatzaile argiarekin ekintzaren egileak "biolento eta ETArekin" lotu zituen, Mugitu! biolentziarekin erlazionatu eta erasotua izanaren irudia islatu nahian, etekin politikoak lortzearren. Lasterrean, Toulousetik, ekintzan parte hartutakoek biharamunerako, urriaren 28an, prentsaurrekora deitu zuten, Iruñera itzultzean tartalariak ekintzaren ustezko izaera biolentoa erabat ukatzeko, protesta mota honen jite komiko eta aldarrikatzailea azpimarratzeko- hautatutako pertsonari inolaz ere kalte fisikorik egin nahi ez diolarik, haren zeregin politiko nahiz enpresariala salatu baizik- eta AHTren aurkako borrokan desobedientzia zibilerako deialdia zabaltzeko.



Gure inguruan prestatzen ari zen jokaldi errepresiboaz susmo txarrik ez genuen, harik eta, 28ko arratsaldean Toulousetik bueltan, ekintzaren nondik norakoak azaltzeko Iruñean prentsaurrekoa ematera zihoazenean kalez jantzitako foruzain batzuek hiru tartalariak euren etxe ondoan atxilotu zituzten arte. Gertakari honek asaldatuta utzi gintuen- Iruñeko kaleetan atxilotu bait zituzten, nahiz eta ustezko delitua Frantziako lurraldean izan- eta ekintzan parte hartutako kide batek handik minutu batzutura tartalarien ordezkari prentsaurrekoa eman behar izan zuen, interes handiz agertu ziren hedabide askoren aurrean. Aldiberean, Foruzaingoaren komisaldegian hiru atxilotutakoei "agintaritzari atentatuagatik" Espainiako Entzutegi Nazionalak auzibidea zabaldu zuela esan zieten. Jakina da aipaturiko Entzutegi hori Francoren oinordekoa den salbuespeneko auzitegia dela eta oro har, bere gain terrorismo auziak hartzen dituela.

Hiru taldekide horien atxiloketaldiari dagokionez, salatu nahi dugu ADN probak behartzeko pairatu behar izan zuten koakzioa. Izan ere, proba horiek ez zuten inolako zentzurik, ekintza publikoa izan zelako eta prentsaurreko publikoa ematera zihoazenean atxilo hartuak izan zirelako. Halaber, 22 ordu pasata aske gelditu zen azken atxilotuak,

jasotako tratua salatu zuen, gauean ez bait zioten lo egiten utzi. Libre ateratzerakoan, Guardiako Epaitegiaren aurrean komisaldegian jasandako baldintza kaxkarrak salatu zituen.

Hala ere, latzena izan zen tartalariak aske gelditzerakoan Madrileko Entzutegi Nazionalean agintaritzari atentatuaren akusaziopean Azaroaren 16an agertzeko agindua jaso zutela.



5. SOSTENGU MOBILIZAZIOAK ETA ELKARTASUN ADIERAZPENAK

Atxiloketa egun beretik Iruña, Etxarri Aranatz, Lizarra, Donostia, Lezo, Irun, Galdakao, Basauri eta Bilbon sostengu mobilizazioak burutu ziren. Hurrengo asteburuan, Euskal Herriko kaleetan “Nik ere egingo nuke” lelodun milaka pegatina ezarri ziren, tartakaden ekintzarekin bat eginaz. Baita ere, Toulouse, Burdeos, Pau eta Clermont Ferrant Espainiako Kotsuletxeen aurrean elkarretaratzeak izan ziren, Okzitaniako Libertat mugimenduak deituta. Halaber, auzipetuekin elkartasuna agertuz hainbat taldek idazkiak kaleratu zituzten: CADE (Iparraldeko ingurugiroaren defentsarako taldeen koordinakundeak), Bizi! Mugimendua, ACCRIL taldea (AHTk kalteturiko Landetako Hiritarren Koordinakundeak), Ecologistas en acción, Ekologistak martxan, eta Eguzki talde ekologistak, M-15eko AkanpadaSol, Bilboko KEM-MOC, Kakitzat, STEE-EILAS irakaskuntza sindikatua, Nafarroako Lurra, Herriarte Elkartea, Gorripide Kolektibo politikoa, Okzitaniako Libertat, eta beste batzuek. Norbanakoen atxikimenduen artean, Noel Godinena azpimarratu behar da, belgiar hau bait da salaketa sozial eta politikoa egiteko tartakaden sortzailea. Belgikatik auzipetuen aldeko sostengua kaleratu zuen, Internazional gozogilearen webgunean

<http://www.gloupgloup.be/gloup.php?page=actu&cat=Actualit%E9s%20Gloupinesques> ekintzaren inguruko informazioa zabalduz eta Entzutegi Nazionalean hasitako auzibidea salatuz.

Bukatzeko, azpimarratzekoa da egun horietan hedabideetan argitaratu ziren eskutitz eta eritzi artikuluen kopuru handia.

Bitartean, humorerik galdu gabe, geure kideen jazarpen penala salatzekeo M!Mk hainbat ekimen burutu zuen. Besteak beste:



2011ko Azaroaren 16: ADIFEKO ZUZENDARIARI TARTA EMATE GALARAZIA

Hiru tartalariek Entzutegi Nazionalan aurkeztu behar zutela aprobetxatuz Mugituko hainbat kidek, Madrilgo laguntza talde baten babesaz, Antonio Gonzalez Marin ADIFeko zuzendariari madrildar merenge tarta bat ematea erabaki zuten, oraingo honetan eskura, Espainiar estatuan abiadura handiko lineak sustatzeko "bere ahalegin sutsua eskertuz".

Hiru furgonetatan zihoazen polizia nazionalak taldea gelditu zuten bitartean, 10 lagun 20 minutuz geldiaraziak, miatuak eta identifikatuak izan ziren "merengezko arma" arriskutsua eta gozogile jantzia, txano eta guzti, eramateagatik. Gozogintzaren ekimen honetako parte-hartzaileak tarta ematearen galarazpena deitoratu zuten bainan, irrifarrez, aukera gehiago izango zela adierazi zuten.



2011ko Azaroaren 28: POSTAREN BIDEZ 11 TARTAREN BIDALKETA HAINBESTE AHTREN ARDURADUNI

M!Mk postaz 11 tarta bidali zizkion AHTren eraikuntza Euskal Herrian, Estatuan eta Europan bultzatzen duten beste horrenbeste arduraduni. AHT inposatzearen aldeko lan eskerga egiten duen klase politikoa eta enpresariala "saritzea" izan zuen helburu ekintza xeble honek.

"Datozen urteetarako agintari hauek milaka milioi euro zuzendu nahi dituzte azpiegitura defizitario eta xahutzaile honetan. Eta hain helburu ondagarria lortu ahal izateko jakin badakite datozen asteetan parlamentu ezberdinetan oinarritzko eskubideak diren hezkuntza publikoa, osasun publikoa, gizarte laguntza eta abarretan aurrekontu murriztaileak onartuko direla. Ezertarako dirurik ez omen dago, pairatzen ditugun gaitz guztien panazea den AHTrentzat salbu.

Horrenbestez, eta guztion dirua eta sortutako aberastasuna hain modu zuzen eta bidezkoan kudeatzeagatik, esku-erakutsi gozo hauek oparitzea erabaki dugu, beraien politika neoliberalak eskertzen ditugula erakusteko asmoz. Badakigu agintarietako batzuk, eguberri aurre

honetan, linea mantentzen arduraturik egonen direla, beraz tarta hauek edozein motatako "dietentzat" egokiturik daudela ohartarazten diegu".

Hain opari gozoak jaso zituzten agintariak honako hauek izan ziren:

Siim Kallas Jauna, Europar Garraioko Komisaria eta Lehendakariordea, Carlos Secchi Jauna, Europako Garraio Transeuropearreko Lehentasunezko Proiektuen Koordinazio arduraduna, Pepe Blanco Jauna, Espainiako Gobernuko Sustapen Ministraria, Antonio Gonzalez Marin, ADIF-eko Lehendakaria, Patxi Lopez Jauna, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, Inaki Arriola Jauna, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Kontseilaria, Cesar Gimeno Jauna, Euskal Trenbide Sareko (ETS) Lehendakariorde exekutiboa, Ernesto Gasco Jauna, Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Kontseilariordea, Nuria Lopez de Guereñu, Confebask-eko Idazkari Nagusia, Yolanda Barcina Anderea, Nafar Gobernuko Lehendakaria (oraingo honetan lore sorta bidali genion), Anai Astiz Jauna, Nafar Gobernuko Sustapen eta Etxebizitza Kontseilaria, Alvaro Miranda Jauna, Nafar Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Kontseilaria, Yolanda Barcinari bidalitako lore sorta ez zen bere eskuetara heldu, nafar gobernuaren segurtasun zerbitzuak galarazi zuelako.

Horretaz gain, Foruzaingoa, lore sorta bidali zen loredendara agertu zen bidaltzailearen nortasuna ezagutzearren.



6. AGINTARITZARI ATENTATUA DELITUAGATIKO AUZIBIDEA ENTZUTEGI NAZIONALEAN

2011KO AZAROAREN 16: HIRU TARTALARIEN ZITAZIOA ENTZUTEGI NAZIONALERA.

Santiago Pedraz epailearen aurrean hiru tartalariak deklaratzera deituak izan zirenean, ez deklaratzearen eskubideari eutsi zioten, Espainiako Estatuak Toulousen gertaturiko ekintza bat auzibidetzeko jurisdikziorik ez zuelakoan. Potere Judizialeko Lege Organikoaren artikulua bat ezarri zitzaion, zera esaten duena: espainiar batek beste espainiar bati estatu espainiarretik kanpo ekintza zigorgarri bat egin ondoren, bertan ez ba zaio inongo auzibiderik zabaltzen, Entzutegi Nazionalak kasua bere gain hartzeko eskumena du. Hori dela eta, agintaritzari atentatuaren ustezko delituagatik auzipetuak izan ziren. Momentu berean, epaileak ondorengo kautelazko neurri hauek ezarri zizkien:

epaitegian astero sinatzearen behebeharra, pasaportearen kentzea, espainiar Estatutik irtetzeko ezintasuna eta etxeko helbidearen eta telefonoaren jakinarazpen iraunkorra.

Handik egun batzuetara, defentsaren abokatuak helegitea aurkeztu zuen, 4 eta 9 urte arteko kartzela zigorraren eskaera "hiperboliko eta neurrizgainea" zelakoan. Entzutegi Nazionalak tartakatzeko ekintza agintaritzari atentatutzat jotzen duen heinean, Ibon Garrido eta Julio Villanueva auzipetuei sei urte arterainoko kartzela zigorra eska diezaieke; Gorka Ovejerorentzat, aldiz, Fiskaltzak 9 urte artekoa eskatu zuen maltzurki, Arruazuko alkateordea izanik, desobedientzia ekintza honetan parte har dezakeelako ez bere kabuz, kargu publiko gisa baizik.

Hori zela eta, helegitean defentsaren abokatuak auzibidea falta epaiketara berbideratzea eskatu zuen, kontuan hartuz proportzionaltasun printzipio eta ekintzaren tamaina, ekintza burutu zen estatuan, gehienez jota falta izatetik pasatuko ez zela kontuan hartuz.

2011KO AZAROAREN 28: TOULOUSEKO KOMISALDEGIRA LIBERTATEKO BI KIDE DEITUAK IZAN ONDOREN, FRANTZIAN ZABALDUTAKO AUZIBIDEA ILUNPEAN GALTZEN DA

Azaroaren 28an, ekintzan lagundu gintuzten Okzitaniako Libertateko bi taldekide Toulouseko komisaldegira deitu zituzten deklarazioa hartzera. Hori dela eta, jakin izan genuen tartakaden ekintzaren kariatara Toulouseko Grande Instanceko Auzitegian auzibidea zabaldua zegoela. Izan ere, Martin Malvy-k, Midi- Pyrénées-eko Erregio Kontseiluko Lehendakaria eta PLK-ko Batzarraren anfitrioiak, ekitaldia bukatutakoan telefonoz ekintzaren salaketa egin zion Frantziako poliziarri. Horrenbestez, Libertateko bi kide horiek Toulouseko komisaldegi nagusira deklaratzera deituak izan ziren.

Handik aurrera ordea, izapide horien inguruan ez dugu ezer gehiago jakin izan eta tartalariak Toulouseko auzitegian deklaratzeko asmoa zutela zioen eskaera ofizialari ez zioten inongo erantzunik eman.

Laburbilduz, ilunkeria honek guztiak, espainiar eta frantziar estatuen kolaborazio garbiaren erakusgarria dela uste dugu, kasua Entzutegi Nazionalaren esku uzteko asmoa duena.



2011KO AZAROAREN 30 / ABENDUAREN 29: DEFENTSAREN HELEGITEAK ATZERA

BOTATA

Entzutegi Nazionalako epaile Santiago Pedrazek atzera bota zituen Azaroaren 30ean eta Abenduaren 29an, defentsaren abokatuak aurkeztutako erreforma eta gora jotzeko helegiteak, hurrenez hurren. Honetaz gain, Entzutegi Nazionalak auzibidea azkartu nahian, laburdurazko prozedurari eutsi zion, bi eginbide hauek eskatzen zituen bitartean: lehenik, Arruazuko udalari galdetu zion Gorka Ovejero PLK-ren ekitaldira bere kabuz edo udala ordezkatzuz joan ote zen; bigarrenik, Frantziako estatuari erreguzko eskaera egin zion, Frantziako poliziak tarten kutxek zituzten hatz-markak eta ADN azterketen inguruko izapideak bidaltzeko.



2012KO OTSAILAREN 16: LAUGARREN KIDE BATEN AUZIPETZE AUTOA

Entzutegi Nazioanalak laugarren kide bat auzipetu zuen, Mikel Alvarez Forcada, "ekintzan eta biharamuneko prentsurrekoan bere ustezko parte hartzeagatik", Otsailaren 23an Madrila deklaratzera deituz. Tartakatzean modu zuzenean esku ez hartu arren, epaileak agintaritzari atentatuaren akusazio bera egotzi zion, baina beste hiruei ezarritako kautelazko neurririk gabe.

Aldiberean, auto honek orain arte bideratutako laburdurazko prozedurak auzibide arrunta bihurtu zuen eta hortik aurrera 2/2012-10 sumarioa izango da, Fiskaltzak egindako eskaera aintzat hartuz. Izan ere, 9 urte arteko kartzela zigorraren eskaeraren larritasunak, auzibidea sumario bihurtzea exijitzen zuen.

2012KO MAIATZAREN 17 / EKAINAREN

7: AUZIPETZE AUTOAREN

JAKINARAZPENA ETA IKERKETA-DEKLARAZIOAK IRUÑEAN ETA DONOSTIAN, HURRENEZ HURREN.

2012ko apirilaren 9an auzipetze autoa jakinarazi ondoren, erreguaren bidez – Entzutegi Nazionalak izapidea Auzitegi probintzietara bideratuz-Nafarroako bi auzipetuak Iruñeko Auzitegira eta Gipuzkoako beste biak Donostiakora deituak izan ziren ikerketa – deklarazioa har ziezaieten. Tokian tokiko epaileen aurrean lauek Entzutegi Nazionalak bideratutako auzibidearekin ados ez zeudela esan eta deklaratzeari uko egin zioten.

LAPIDARIO DE NAVARRA

POR EL T.A.V. Y POR ESPAÑA!

La atriz ,cameron diaz demanda a la barcina por plagiarle su famoso peinado en " algo pasa con Mery"



Yolanda Barcina pide a ETA que se "destarte" definitivamente.



arriba en las afotos vemos el material pastelero, incautado a la nueva eta ,ahí es nada.

la "Inteligencia Española" sospecha de una excisión de la banda.

Esta . Tarta .Alabarcina. ásin se llama la fracción operativa mucho ,más melosa y dulce que la anterior ,según la policia pretenden instaurar una dictadura de nata y chocolate caliente

ST
K
AN

7. AUZIBIDEAREN SALAKETA: GOZOGINTZAREN KRIMINALIZAZIOAN ESPAINIAKO ESTATUA AITZINDARI

Mundu zabalean tartakada politikoen jardueraren inguruko eraskinean azaltzen den bezala, tartakaden ekintza mendebaldeko edozein estatutan ondorio legalik gabeko protesta ekintza komiko bat baino ez da, Toulousen gertatu bezala, non ekintza normaltasun osoz hartua izan zen poliziaren partehartzerik gabe. Espainiar estatuan, ordea, biktimismo lotsagabeak, toxikazio informatiboak, manipulazio politikoak eta neurrigabeko oihartzun mediatikoak protestaren kriminalizazioa eragin dute, Entzutegi Nazionalaren atarian lau auzipetuen buruak zilarrezko erretiluan jarriz. Frankoren diktaduraren oinordekoa den salbuespeneko entzutegiaren aurrean, hain zuzen ere. Hori dela eta honako hau salatzen dugu:

1. Proporzionaltasun printzipioa errespetatu ez izana, gertaera “agintearen aurkako atentatu larri” gisa kalifikatzeagatik eta ondorioz, 4 eta 9 urte bitarteko kartzela zigor eskaera neurrigabeak egiteko aukerarekin. Oso deigarria da gisa honetako ekintzak beste herrialde batzuetan izaten dituzten zigor legal arinak. Frantziar Estatuan tartakatzeagatik ezagutzen dugun azken sententzian, guk egin genuen lurralde berean hain zuzen ere, aurreko gobernuko lehen ministroa Raffarin jauna tartakatu zuen gazteak 400€ko isuna jaso du.

2. Nafar gobernuaren mendeku politikoa, Entzutegi nazionalen izapideak abiarazteko zalantza izpirik erakutsi ez duena eta gainera Forzuangoa erabiliz. Gauza jakina da polizia honek estatu espainiarretik kanpo ez duela inongo eskuduntzarik eta hori gutxi balitz, bere nagusia, Yolanda Barcina alegia, da salaketa jarri duena. Bere helburua argi ta garbi, hau da: nafar biztanlegoaren zati handi baten poztasuna eragin zuen ekintza baten aurkako epaia eredugarria lortzea.

3. Auzi hau Entzutegi Nazionalak eramatea, salbuespeneko auzitegia dena, frankismoko Ordena Publikoko Auzitegitik eratorria dena eta azkenaldian, espainiar Estatuko disidentzia politiko ororen organu zigortzaile eta errepre-sogile bilakatzen ari dena. Horregatik, hainbat sektore herrikoirekin bat eginik honen desagerpena aldarrikatzen dugu.

4. Espainiar Estatuan ezartzen duten autoritate printzipio sakrosantua. Delitu bat “agintearen aurkako atentatu larri” gisa kalifikatzeko “elementu subjektiboan” artean besteak beste hauek daude: iraintzea edo laidotzea nahi izatea eta autoritate printzipioa ez ezagutzea. Autoritate printzipio honen aplikazioak Konstituzioak aldarrikatzen duen “espainiar guztien berdintasuna legearen aurrean” baliogabetzen du. Gauzak horrela, jomugaren arabera ondorio legalak desberdinak dira. Kasu honetan, esaterako, agintaritzarik gabeko pertsona bat tartakata-tzeagatik falta bat izatetik pasako ez zen bitartean, pertsona hori agentea balitz 2 eta 4 urte bitartean zigortua izan zitekeen eta tartakatua agintaria balitz ordea, 4 eta 6 urte bitartean. Auzipeturiko bati gainera, kargu publikoa izateagatik larrigarria ezarri zaio eta berari zigorra 9 urteraino igo dakioko.

5. Frantzian poliziak zabalduko eginbidearen inguruko ilunkeria eta estatu horren utzikeria bere lurraldean gertaturiko afera bati dagokionez. Gogoratu behar da egun haietan Toulousen



ekintza ikertzeko eginbide bat zabaldu zela bainan jarraipenik izan ez zuenez Entzutegi Nazionalaren eskutara iristea ahalbidetu zen. Hori dela eta, Espainiarekin Frantziar gobernuaren lankidetzatza juridiko-poliziala salatzen dugu. Izan ere, Frantziako gobernuaren jarrerak lau pertsonen aurkako jazarpen penal neurrigabea eragin du, gure inguruko edozein herritan ia ia ondorio legalik ez duen bortzarik gabeko ekintza batengatik.

ERANSKINAK

1.E. "YOLANDA BARCINARI GUTUN IREKIA"

Auzipetuek sinaturiko gutun hau Euskal Herriko hainbat komunikabideetan argitaratua izan zen Yolanda Barcinak estatu mailako hedapena duen "Mujer Hoy" aldizkarian (2012ko maiatzaren 13an argitaraturik: <http://www.hoymujer.com/Hoy/mujeres-hoy/Yolanda-Barcina-tartazo-senti-677388042012.html>) Toulouseko "tartakaden" inguruan egin zituen hainbat baieztapenen gezurrari erantzun asmoz. Erantzuteko eskubidean oinarrituz honako zehaztapenak egiten genituen:

1.- Elkarrizketaren izenburua ezin ikusgarriagoa zen: "Irainduta eta erasotuta sentitu nintzen".

Mendebaldeko herrialdeetan eta kulturaren, "fidagarritasun test" a gainditzen ez duten politikarien egitateak salatzekeo ekintza komikoa besterik ez da, karguaren baitan doan betebeharrat bezala onartua dagoena. Politikari handiustekoei, gezurti edo ustelen aurrean erasoturik sentitzen den herriak, asaldatzeko duen eskubidearen adierazgarri. François Hollande, frantziar Errepublikako Lehendakari hautatu berriari, irin zaku oso bat bota zioten hauteskunde kanpainan bertan eta Nikolas Sarkozy bera, behin baino gehiagotan "tartakatua" izan da.

Erasotu egin zaitugula leporatzen diguzu, Nafarroako eta Euskal Herriko historian izan den eraso ekologiko eta sozio-ekonomiko handienaren erantzule nagusienetakoa zarela ahaztuz. Aski da! Biktimismo merke gehiagorik ez!

2.- "Toulousen inork ez zuen ezertxo ere egin, oinez alde egin zuten, askatasun osoz" esaten duzu zuk, inork ez zuela ihes egin adierazi nahi dugu guk. Ekintzan parte hartu genuen guztiak eraikinaren kanpo aldean egon ginen denbora batez, are eta gehiago, prentsaurreko bat ere eman genuen. Alde egiten utzi izanak eta identifikatuak izanak argi eta garbi uzten du frantses agintariak ekintza mota honi ematen dioten garrantzi urria. Frankismoko Ordena Publikoren Auzitegia (TOP) zenaren oinordeko zuzena den Entzutegi Nazional salbuespen auzitegiak ordea 9 urterainoko kartzela zigorrak eskatzen dizkigu.

3.- "Ekitaldi hura grabatzen ari zen Aragoiko telebistari esker, Foruzaingoak identifikatu eta atxilotu ahal izan zituen, lasai aski etorri baitziren Iruñera, grabatu zituztela pentsatu gabe. Ez zuten uste zeintzuk ziren bagenekienik".

Adierazpen honi buruz, AHTren aurkako desobedientzia mugimendua den Mugitu!k ekintza publikoak egin eta beregain hartzen dituela esaten dugu, ezkutatu gabe. Tartakaden ekintza Mugitu!ko kideek osorik grabatua izan zen eta bi ordu eskasen buruan interneten eskegi genuen. Are eta gehiago, Iruñera iritsi ginenean, ekintzaren arrazioen berri eman behar genuen prentsaurrekora gindoazela atxilotu gintuen Foruzaingoak. "Tartalarien" ordeztu prentsaurrekoa eman behar izan zuen pertsonari ere "agintarien aurkako eraso" egozten diote.

4.- Ondoren honako hau aipatzen du: "Horiek beti lurralde honen aurrerapenaren aurka egoten dira". Aldarrikatzen duen aurrerapen hori azpiegitura erraldoien eraikuntzan oinarritzen dena da, ingurumenaren suntsitzaile, baliabideen xahutzaile eta sozialki ezertarako balio ez dutenak. AHT azpiegitura esanguratsuenetarikoa den arren Nafarroan eta Euskal Herria osoan mota honetako egitasmoen zerrenda luze eta zabala dugu. Denak komunean hauxe dutelarik: guztion diruarekin erreskataturiko banketxeen, "pelotazo urbanistikoa" bultzatu duten eraikuntza enpresen eta prima bikoitzak kobratu eta gardentasun eza nabarmenarekin egindako esleipenak onartzen dituen klase politikoaren artean banatzen den "pastel" izugarria.



5.- Soldata %40 jaitsi duela egia den galdetzen diotenean, inolako lotsarik gabe baietz esaten du “politikoek eredugarri izan behar dugu” adieraziz. Honi buruz hauxe argitu behar dugu, Nafarroako Gobernuko goi kargu guztiak bezalaxe, aurten Yolanda Barcinak %33 gehiago irabaziko du “erantzukizun gehigarria” deritzon kontzeptu berri bati esker. Dieten eskandaluak behartuta, CANeko dietak kobratzeari uko egiteak eragindako diru galera berdintzea du helburu gehigarri berri honek. Honi guztiari, Pirinioetako Lan Komunitateko (PLK) Lehendakari bezala irabaziko duen soldata gehitu behar zaio, hauxe baita hain zuzen ere Toulouseko ekitaldian bere gain hartu zuen kargua.

Mikel Álvarez, Ibon García, Gorka Ovejero, Julio Villanueva (Toulouseko TAV-EZ tartakadengatik auzipetuak)

A.2. TARTAKATZE POLITIKOAREN JARDUNA ETA HONEN ONDORIO LEGALAK MUNDU ZABALEAN

(“Historia, teoría y práctica del tartazo político” artikuluan oinarriturik)

<http://www.antimilitaristas.org/spip.php?article1871>

HASTAPENAK: ZINE MUTUA

Pelikula mutuek dagoeneko erakutsia zuten: pelikulako gaiztoaren aurpegian botatako tartakada, hau sorpresaz harrapaturik -hasieratik aurreikus zitekeen arren- zineko ikusleengan bilatzen zen zirrara lortzen zuen behin eta berriro. Ekintza anarkiko honek, ohitura egokien aurka jotzen bazuen ere itxura prestuko jaun handiuste bat -Charlie Chaplin zanpatzen duen enpresari zapaltzailea esaterako- izaki irriarri bihurtzen zuen. Umiliazioa erabatekoa da eta besteen zorigaitza barre-algara, handia baino handiagoa. Lauren & Hardy moduko maisu handiek behin eta berriz erabilitako pailazokeria hau performance artistikoen mailara igo zuten.

Zine mutuko pelikulen garaiko mamia zeraman jardun honek, bat bateko “revival-a” jasan zuen hirurogeita hamar hamarkadako “pastelen mugimenduarekin”. Honek, gizartearen estratu gorenaren artean izu-olde bat eragin zuen. Hitzaldi bat eman eta historiara esnegainaz beteriko aurpegi batekin igarotzearen ideiak bat baino gehiagori jendaurrean ateratzeari uko egitera eramane zuen.

NOEL GODIN ETA INTERNAZIONAL GOZOGILEA

Noel Godin, “tartakatzaille belgikarra”, zine kritikaria, idazlea, aktibista eta pailazoa da, tarta gerrilla bidez buruturiko ekintzengatik mundu zabalean ezaguna dena. Ziurrenik, Noel Godin jardun politiko hau erabiltzen aurrenetakoa izan



da.

Godinen ibilbide militantea Zuzenbideko karrera ikasten zebilela hasi zen, Portugaleko Salazar diktadorearen konstituzioaren erredakzioan lagundu zuen irakasle bat kolaz erasotzean. Honengatik, bere zuzenbideko ikasketak amaitu gabe utzi zituen. 1969. urtean Marguerite Duras Anderea kremaz tartakatu zuen “txorakeria hutsak idazteaz gain, hauek filmatu ere egin ditu” argudio pean. Bere ondorengo biktimen artean Jacques Delors, Helmut Kohl, Bernard Henry-Lévy (Godin eta honen kolaboratzaileen tartapean 7 aldiz erori dena), Jean-Luc Godard, Michel Camdessus, Patrick Bruel, Marco Ferreri, Bill Gates, Nicolas Sarkozy, e.a.

Orain dela urte batzuk bere autobiografia idatzi zuen “Cream and Punishment” (krema eta zigorra bezala itzul daitekeena). “Nire pastelak, dadaistek pertsonalitate ospetsu bezain ezdeusei bidaltzen zizkieten gutun iraingarrien lerroan jartzen ditut”.

16. orrialdea TXOSTENA: 4 ETA 9 URTE ARTEKO KARTZELA ZIGORRA?

Taldearen antolakuntzari dagokionez adierazten digu: “erabakiak batzarrean hartzen ditugu. Ni taldearen irudi publiko bilakatu naiz nolabait esatearren, baina egia esateko kapitainik gabeko filibustero taldea gara. Pastelekin prestaturiko ekintzak oso ongi antolatuak egon behar dira eta gutxienik lau pertsonaz osaturiko taldeetan. Hauen artean, pastela sartuko duen laguntzaileaz gain, zuzenean dokumentatuko duen kameralaria ere egon beharko litzateke”. Oso garrantzitsua da tarta ez botatzea, bere tokian jartzea baizik diosku Godinek, “eta ihesaldiaz ez zara arduratu behar, honek segurtasun taldeen eskutik jipoi bat jasotzea ekar badezake ere. Gainera, kolpeak jasotzean erabat debekaturik dago hauek itzultzea. Soilik tartarik hoberena da maila onekoa, eta ekintza baina pixka bat lehenago erosi beharko zen tokiko gozodenda batean. Hemen garrantzitsuena kalitatea da, ekintza bat pikutara joan ezker tarta guziaz jatea egokitzen baitzaigu”.

Harrigarria bada ere, bere biktimetako inork ez du Godin salatu orain arte. “Gogotsu eginen lukete” diosku Godinek, “baina gehien maite duten horren aurka eginen lukete orduan, beren erreputazio publikoa. Atxilotzen nautenean, gehienetan poliziek txantxak egiten dituzte eta sarritan, etorkizunerako beraien kandidatuen zerrenda batekin datozkit”.

GOZOGINTZA POLITIKOA EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATZUETAN

1977an, Michael Hesseltine politikari kontserbadore entzutetsua esnegain eta sagar pastel batez koroatu zuten Leeds Unibertsitatean hitzaldi bat ematen ari zela. Bere alderdiko kide David Frostek ordea, New Yorkera joan behar izan zuen “a pie in the eye” (pastela begian) baten gozamina dastatu ahal izateko.

Laurogeiko hamarkadan eta Manchesterreko auzo elkarte bateko pastel jaurtitzailerik andere baten eskutik, Charles printzeak ere bere aurpegi errealean pastela jaso zuen. Eta Tony Benn, alderdi laboristaren ezker aldeko dibinoak ere, bere bi belarrien artean tartakada jaso zuen, 1982an Galesen, lan eskubidearen inguruko sindikatu bilera batean. Entzuleak ustekabe harrapatu zituen eta tartalariak mikrofonoa hartu eta “alde hemendik beste edonora zure lanerako eskubidearekin” esateko denbora izan zuen. Ondoren, kanporatu eta polizien esku utzi zuten, jarraian aske utzi zutelarik.

Erresuma Batuan, Herbeheretan, Frantzia eta beste herrialde europarretan jardun hau uste baino ohikoagoa da eta tartakatze politikora soilik dedikatzen diren hainbat talde existitzen dira.

Ekintza hauen ondorio penalak arinak edo hutsalak izaten dira. Frantziar Estatuan tartakaden inguruko azken epaiak 400 €-ko isuna jarri dio aurreko gobernuko lehen ministroa Raffarin jauna tartakatu zuen gazteari.

Espaniar Estatuan tartakada politikoez tradizio txikia dute, okupa mugimendua bere lehen

urratsak ematen ari den arren. Esaterako, Gironako okupek, Joaquim Nadal alkateak “El Quimics” Zentru Sozial Okupatuaren kanporaketan erakutsi zuen grina saritu nahi izan zuten bertan egon baitzen eta honela, 2000ko maiatzaren 13an, Gironako Loreen Feria inauguratzen ari zela okupa batek tartakada gozoa oparitu zion. Ekintza honen ondorio legalen berri ez dugu. Sevillan ere, 2009ko ekainaren 2an, “Fábrica de Sombreros” C.S.O.A-ren kanporaketan hiriburuko Erdiguneko Distrituko zuzendaria Luciniano Rodríguez (IU) tartakatua izan zen. Ez zen salaketarik ezta epaiketaririk egon.

2007ko urrian, Estatu Batuetako politikari Al Gorek, hitzaldi bat eman ondoren Xixongo (Asturies) antzerki batetik ateratzen zenean tartakada bat jasan zuen, aurpegian jo ez ziona. Tartalaria kartzelara sartu ez bazen ere, arrisku betean egon zen, epaileak kartzela zigorra ez jartzeko arrazoia aurpegian eman ez ziola izan baitzen.

The image shows a document from the Spanish Social Security system (Seguridad Social) titled "GAIXOTASUN ARRUNTA EDO LANEZ KANPOKO ISTRIPUA" (Common Illness or Work-Related Accident). The document is filled with handwritten notes in Spanish, including "Atencion sanitaria los fines de semana (PAC)", "Osasungintzaren finantzia zio publikoa", and "Sueldos de sustituciones". A large, prominent red stamp is placed over the bottom right portion of the document, reading "DESVIADO PARA EL TAV". The stamp is tilted and has a distressed, ink-like appearance. The document also features a barcode at the bottom left and a signature at the bottom right.



GOZOGILEEN BANDAK ESTATU BATUETAN

AEBn botatako lehen pastel politikoa 1970ko maiatzaren 14an izan zen. Tom Forcade, “Underground Press Syndicate”ko burua zen eta “Pornografiari buruzko Batzorde Presidentziala” delako zentsura batzordean deklaratzera deitua izan zen. Apaiaz mozorrotua agertu zen eta pornografiaz salaturiko fanzine underground-en zerrenda luze baten irakurketa ondoren, jarrera sumindu bat agertu zuen eta azkenean, zentsoreak pikutara bidali zituen. Jarraian, batzordeko kide zen Otto N. Larsoni aurpegian pastela jarri zion. Tartakadaren argazkia New York-ko Daily News egunkariko lehen orrialdean agertu zen, eta ondoren, herrialdeko egunkari gehienetan.

AEBn mugimendu honek buruzagi nabarmen bat izan zuen, Aron Kay hippya. 1976 urtean eta independentziaren berrehungarren urteurrenean, pastelaren maisu handi honek arreta izugarria erakarri zuen Patrick Moynihan arrazistari, senaturako hauteskunde ekitaldi batean, kafe-kremazko pastel bat aurpegian zartatzea lortzean. Moynihan jauna Nixoren zakur fidela zen eta NBEko enbaxadorea. Aron Kayren esanetan “Moynihanek zerbitzatzen zituen zerbitzu sekretuen kanpo politikagatik protesta egiteko” egin nuen. Urte hartako manifestazio guziak baino arreta mundial handiagoa bereganatzea lortu zuen. Abiadura txundigarri batekin, Aronek bere bonbardaketa jarraitu zuen eskuineko teorikoetako baten aurpegian aztatuz: Willian F. Buckley, eta Andy Warhol artistarenean, Abe Beame NewYork-ko alkaterenean, CIAko bi buruzagi-ohienean eta Watergate-ekin zerikusia zuten hainbat pertsonalitateen aurpegietan. Kayren pastelek Udaleko goi karguak botatzen lagundu zuten baita 1980ko presidentetzarako

norgehiagokan zebilen ustezko kandidatu aurrerakoia zen Brown jauna ere.

Geroago, Kay bera New York-eko alkatetzarako aurkeztuko zen “Bozka Kayren alde eta jo iezaiezu tartakada aurpegian agintariei” lelopean. Telebistaren boikotaren aurrean ez kikiltzeko deialdia egin zuen eta nazio mugimendua sortzera deitu zuen: “langileak, tartakatu itzazue zuen nagusiak; gazteak, zuen irakasleak; maizterrak, zuen etxeke nagusiak”.

Vietnamen aurkako yankien gerrarako, soldadutzara sartzeko deialdien erreketak publikoen garaitik, edota sujetadoreen erreketak publikoetatik, pastelaren jaurtiketak baino grina publiko handiagorik ez zuen bestelako protesta metodorik lortu.

Pastelekin eginiko ekintza zintzo hauetako gehienak taldeetan bilduriko per-tsonen eskutik egin ziren. Kanadako Vancouver hiriko Groucho-Marxistak eta Ohioko Daytoneko Revolutionary 3 Stooges Bigade (R3SB) bezalako taldeek arrakasta zabala izan zuten denbora luzez.

Bi talde hauek makina bat “pie-jobs” edo tarta-lan burutu zituzten.

1977ko urte amaieran, VancouVERRERA zihozten politikari kanadarrek, Kanadako Alderdi Anarkistaren (grouchomarxista korronea) edota New Questioning-Coyote Brigaden eskutik ekintza gozogile bat jasotzearen aukerarekin abiatzen ziren.

Frankie Lee grouchomarxistaren biktimen artean jarrera muturreko Eldrige Cleaver, José Delgado psikozirujanoa (txekor burmuin eta ketchup nahaspila batekin saritua) edo Trudeau Gobernuko bi ministro daude.

Kanadako beste tartalari banda batzuek ez bezala, Revolutionary 3 Stooges Brigade taldekoek, beren helburuak tokiko pertsonalitateen artean bilatu zituzten. Esaterako, Daytoneko Zentral Elektrikoaren bozeramailea edo interbentzio berezietako komandoetako (SWAT) polizia bat.

“Hau tokian tokiko erailketa gozogile tipikoa izan da, esangura nazionalik gabekoa. Egunerokoan bertako kabroiek paper askoz garrantzitsuagoa

18. orrialdea TXOSTENA: 4 ETA 9 URTE ARTEKO KARTZELA ZIGORRA?

jokatzen dute nazio mailako pertsonalitate abstraktu horiek baino. Guziei atsegin die argiaren erreziboa igo dien morroiak tartakada bat jaso duela jakiteak”.

Kanadan, gure lagun gozogileek, hamazazpi ministro tartakatu dituzte, Jean Chretien lehen ministroa barne. Azken gertaera honegatik kartzela zigorrera kondenatu zituzten, baina zigorra ez zen bete.

Tartalariek beren jomugak pastelez zipriztintzeko eta ihes egiteko erraztasuna ikusita, Kanadako Open Road fanzine anarkoak 1977ko 4tik 11rako astea “Tartakada Aurpegian Nazioarteko Astea” izendatu zuen.

Orain gutxi, AEBn Biotic Backing Brigade (BBB) taldea sortu da. Talde armatu tartalari honek ekologian, bioerregionalismoan, giza eskalako ekonomian eta benetako gastronomiaren inguruan aritzen da. Hauen metodoa Noël Godin eta bere International patisserie Brigade ezagunean oinarritzen da: “tartak jaurtitzeak ez ditu beste ekintza moduak ordezkatzeko, baina erresistentziarako sormenezko tresna da. Jendea aspertua dago gutunak idazteaz, edo bozkatzeaz,

kexatzeaz eta beraietaz paso egiten dutela ikusteaz”.

90. hamarkadan muturreko liberal Milton Friedman ekonomialariaren aurpegira tarta bat botatzea ehunka pertsonetako manifestazio oihukatzaile bat egitea baino askoz eraginkorragoa zela ikusi zuten, komunikabideen ikuspuntutik bederen. BBBren biktima entzutetsuen artean Bill Gates, Renato Ruggiero (Munduko Merkatari Erakundeko zuzendari orokor ia ezezaguna izandakoa, tartakatu izan arte), Keith Campbell (Dolly ardia klonatu zuen zientifikoa), Kenneth Derr (Chevron multinazionalako zuzendari ohia eta egun Haliburtonekoa), Monsantoaren zuzendari exekutiboa eta hainbat alkate estatubatuar daude (San Franciscoko Willie Brown barne). Azken hau tartakatzegatik, etxerik gabekoen aurka zeraman jazarpen politika salatzeke, hiru hilabeteko kartzela zigorrera kondenatuak izan ziren eta hura bete behar izan zuten. Ezagutzen ditugun kasu guzietatik, tartakada politiko bategatik kartzelan bukatu duen kasu bakarra da hau, eta beti ere, Nafarroako Gobernuko Lehendakariaren tartalariei eskatzen zaizkien kartzela urte ikaragarri horietatik oso urrun dagoena.

A.3.- AHTren AURKAKO BORROKA EUSKAL HERRIAN

AHT Euskal Herrian planteatu den inoizko azpiegitura lan handiena da dudarik gabe. Euskal Y, Nafar Korridorea eta Dax-Behobia TGV linea berriek (azken hau Iparraldean), gobernu ezberdinek sustatua izan da 1988tik. Hiruak batera Abiadura Handiko 440 kilometro lerro aurreikusten dituzte, dagoeneko sobera txikitua daukagun gure lurralde txiki honetarako.

Borroka honen hastapenetan, eta Hegoaldean, bidea egin zuen lehen antolakundea AHTren Aurkako Asanblada izan zen, 1993. urtetik aurrera, garapeneriaren aurka eta AHTren aurka informatzen eta aurkaritza sustatzen hasi zena. Pitinka-pitinka, ordu arte ezagutzen ez zen alimaleko azpiegitura horren aurkako sentsibilitatea zabaltzen hasi zen, honek ingurumenari zekarzkion kalte izugarriez gain, koste ekonomiko eta sozial itzelak baitzituen. Proiektu honek aurrera egiten zuen heinean, geroz eta talde eta erakunde gehiagok AHTren aurkako jarrera erakusten zuen. Honela, 2001. urtean AHT



Gelditu! Elkarlana koordinadora bateratzailea osatu zen: AHTren izaera antiekologiko eta antisozialaz jabeturik, proiektuaren geldiaraztea exijitzeko indarrak batu zituzten, betiere, AHTren aurkako jarrera irmo batean oinarriturik. Bestaldetik, inposaketaren salaketa egiten zuen eta kaltetzen zituen biztanleen erabakitzeke eskubidea aldarrikatzen zuen. Azkenik, AHTren arazoaz harago zihoan eta instituzioetatik inposatzen ari zen garraio, lurraldearen antolakuntza

eta gizarte eredu ezbaian jartzen zuen.

Borroka ikuspegi hauetan oinarriturik, makina bat mobilizazio eta informazio ekintza burutu dira AHTren aurka. Honela, aurkaritza mugimendu bat zabaltzen joan da oinarritzko borroka tresna mobilizazioak, borroka informatiboa (propaganda ofizialaren etengabeko bonbardaketaren aurrean), herri galdeketen antolakuntza eta desobedientzia nahiz erresistentzia zibileko ekintzak burutuz. Borroka hau 2006-2008 urteetan sutsuki nabarmendu zen, Euskal Y lanen hasieraren aurrean hain zuen ere, eta orduan, AHTren problematikak gizarte giroa erabat zipriztindu zuen herri borroken mamia izatera pasatuz. Garai bizi hartan ekimen anitzak burutu ziren, hala nola, kaltetuak ziren 10 herri baino gehiagotan herri galdeketa gauzatu ziren, hango biztanleen AHTren aurkako jarrera garbi eta erabakitze borondatearen ikusgarri, udaletxeetan desjabetze behartuetan akten sinadurari eginiko boikota -eta proiektuarekin inongo kolaboraziorik egin ez zutenak-, Arrasaten burutu zen 15.000 pertsonako manifestazioa eta erresistentzia ekintza andana lan eremuan, gatazkak modu anonimoak hartzen zuelarik.

Dena den, AHTren aldeko gobernu eta instituzio sustatzaileek egoera zakarki behartu zuten Euskal Y-ren lanak inposatu eta AHTren aurkaritza mugimendua kriminalizatu. Honi dagokionez, esanguratsua da ezagutzea Ertzaintzaren barne zirkular batek, AHTren aurkako edozein protestaren espediente Madrigo Entzutegi Nazionalera bidaltzeko agindua ematen zuela, protesta hauek izaera baketsua balute ere. Izatez, AHT espainiar Estatuan operazio politiko-empresarial apustu bat den bitartean (honen azpiegitura plana EB handiena da eta 10.000 kilometro AHT lerro eraikitzea aurreikusten du, honela, 2008an European eraikitzen ari ziren Abiadura Handiko lanen %64 espainiar Estatuan ari ziren), Euskal Herrian aldiz, Estatu arrazoian bilakatu da, gure herrian pairatzen dugun gatazka politikoaren erdian gai hau sartzean. 2009. urtetik aurrera, Euskal Y-ren lanen garapenak herri mugimenduaren erantzun maila gailentzen hasi zen eta aurkaritzak eraso izugarri honi aurre



egiteko zailtasunak izan zituen, pitinka-pitinka "impasse" egoera batean sartuz. Hala eta guztiz ere, mugimenduaren indarra agerikoa zen oraindik ere, lan eremura eginiko manifestazio kasu, 2009ko urtarrilean eginiko manifestazio hartan milaka pertsona bildu ziren eta honen akaberan desobedientzia ekintza erraldoi bat burutu nahi izan zen (lanen eremuan eserialdi bat egitea). Baina Ertzaintzaren erantzuna basatia izan zen 8 atxilotu eta dozenaka zaurituekin (atxilotuei terrorismoa leporatu zieten Madrigo Entzutegi Nazionalera bidali asmoz). Era berean, ehunka pertsonak eta goiz bakar batean, 800.000 gutun "faltsu" banatu zituzten Hego Euskal Herrian (3 milioi biztanle inguru dituenak) euskal gobernuaren eta nafar gobernuaren inprimakien antzak zituztenak eta biztanle bakoitzak, AHT ordaindu ahal izateko, 4.790€ ordaindu beharko zituela adieraziz.

Ordudanik, gure asmoak mobilizazioak berrindartzera bideratu dira, gobernuak AHTn baliabide publikoen zarrastelkeria salatuz, krisiaren kostuak, sektore herrikoien lepora botatzen dituzten bitartean. Honela, AHTren lanek kalte handiak eragin dituzten arren, inongo gizarte kontsentsurik edo legitimitate publikorik ez duen inposaturiko makro-proiektu honek, aurrekontu guzien %70 oraindik ere gauzatu gabe du. Eta aurkaritza aktibatzearen saildi honetan, 2010ean, hain zuzen ere, Mugitu! AHTren aurkako desobedientzia mugimendua sortu zen.

Borrokak, beraz, aurrera jarraitzen du, egiten den edozein egiazko eztabaida edo erantzun sozial isiltasunarekin, manipulazioarekin edo erreprezioarekin jazartzen bada ere.

**A.4. ESTEKA INTERESGARRIAK: DOKUMENTUAK, BIDEOAK,
WEBGUNEAK...**

MOVIMIENTO MUGITU!

<http://mugitu.blogspot.com>

Mugitu!ren hastapenaren bideoa: <http://blip.tv/mugitu/mugitu-hasiera-5094322>

Ekintza FLA-nean: <http://blip.tv/mugitu/accion-en-el-foro-logistico-atlantico-5598563>

AHTren AURKAKO EUSKAL HERRIKO BESTE TALDE BATZUK:

AHT GELDITU! Elkarlana <http://www.ahtgelditu.org>

AHTren Aurkako Asanblada: <http://www.sindominio.net/ahtez>

YOLANDA BARCINA TARTAKATZEAREN EKINTZA::

- Mugitu!ren ekintzaren bideoa: http://youtu.be/xuKUV_FAktI

Tartakaden ekintzaren bideoa: <http://blip.tv/mugitu/tartazos-antitav-para-barcelona-5682510>

Tartakaden ondorengo elkarrizketak Yolanda Barcinari:

- Al Rojo Vivo saioa (La Sexta):

http://www.lasexta.com/sextatv/alrojovivo/tres_tartazos_para_barcelona/277353/5351

- ABC: <http://www.abc.es/20111027/espana/abci-agresion-barcelona-201110271859.html>

- “Mujer hoy” aldizkarian Yolanda Barcinari elkarrizketa:

<http://www.hoymujer.com/Hoy/mujeres-hoy/Yolanda-Barcelona-tartazo-sentido-677388042012.html>

- “Barcelona Merengue killer” Mugitu!ren ekintzaren bertsioa: <http://youtu.be/LQ003DUCpzE>

TARTAKADAK MUNDUAN ZEHAR:

- Internacional Gozogilearen webgunea:

<http://www.gloupgroup.be/group.php?page=actu&cat=Actualit%E9s%20Gloupinesques>

- Testua espainieraz “Tartakatze politikoaren historia, teoria eta praktika”:

<http://www.antimilitaristas.org/spip.php?article1871>

- Testua: “Deconstrucciones de la imagen del poder : acerca del significado social y estético del lanzamiento de alimentos contra celebridades e instituciones:

<http://fxysudoble.com/es/cronologia/deconstrucciones-de-la-imagen-del-poder-acerca-del-significado-social-y-estetico-del-lanzamiento-de-alimentos-contra-celebridades-e-instituciones/>

Nazioarteko tartakaden bideoa: <http://blip.tv/mugitu/tartas-5861911>



**Mugitu!
Mugimendua**

<http://mugitu.blogspot.com>
mugituaht@gmail.com